

**LANBIDE IRAKASKUNTZA XIX MENDERDIAN:
NEKAZARITZARAKO ESKOLAREN SORRERA,
ANTOLAKUNDEA ETA AMAIERA BIZKAIAN
(1851-1860)**

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA

XVIII mende bukaeran eta XIX mendeko lehen erdian bizi izan ziren gertakizunak eta aldaketak, burrukak eta tirabirak, Euskal Herriko historia garaikidearen ezaugarritzat har ditzakegu. Igarobide garaia zen, iraultza liberal burgesa eta iraulketa industrialaren abiada bezala ezagutzen diren fenomenoetan murgildurik aurkitzen zen populazioa eta klase sozial bakoitza proiektu berriak edo ez hain berriak, burutzera, defendatzera eta bultzatzera beharturik zegoen. Ohizko erresumaren antolakunde politiko administratiboa ere puxkatu, eta ohizko gizartearen klase egituraketa kolokan.

Sail produktiboen egituraketa, erabat aldatzeko bidean zegoen edo aldakuntzuntza giroan bizi ziren behintzat, aurrerakuntza teknikoen ezagupidea zein gainontzeko jakintzak, gero eta nabarmenago agiri bait zen oinarri oinarritzkoa eta premiatsuak zirela, bai Bizkaiko agintari politiko zein haundikien artean. Baina ez edonolako jakinduria, aplikapen zuzena egin behar produktiboan zuen horretarikoa bereziki: Franzian burutu zen Enziklopediak adibide ederrak, marrazki eta guzti, eskeintzen zituen, orientabide bat finkatuz eta beharbada horregatik, tradizio industrial eta teknikoa zegoen Euskal Herriko herrietan, lortu zuen arrakasta eta zabaldu zen erruz.

1739.an ospatu ziren batzar nagusietan Nautikazko Eskola bat sortzea proposatu zen eta lasterrera Bilbon eratu zen (1). Gero Herri Adiskideen eraginez, Bergaran, ikaskuntz gune aurreratua antolaturik zegoen. Eskola hauek jadanik ez dira izango ohizko zalduntxoek kolegioen takerakoak soil soilik (2). Bereizkuntza garbi bat gertatu da: Eguneroko ekintza produktiboetan hazkuntza eta aurrerakundea lortzeko, ikasketez jabeturik zeudenez, ohizko jakintza arruntak gaituz, aukera oparagoak lortzen zituzten, lanbide emankoragoak ateratzeko. Irakaskuntza praktikoen eta teknologi ikerketen garrantzia agiri agirian azaldu zen; zientziaren filosofi berri baten ildotik joan beharra ere bai. Euskal Herriaren joera berriaren aintzindari F. J. Munibe (3). Gazteria zalduna eta merkataria hazkunde ekonomikoaren joeran eta zeregin horren arauera hezitu nahiko dute.

(1) 1739.eko ekainaren 16 an Batzar Nagusiak matematikaren irakaskuntzaren eskola antolatzea, Bilboko hiria eta kontsulatuarekin bat, agindu zuen. Eta 1740.an uztailearen 19an Lekeitioko Jose Vicente Renteria eskolako zuzendari legez izendatu zuten («Maestro director de esta facultad»).

(2) SAENZ DE SANTAMARIA C.: «La educación institucionalizada en el País Vasco en los siglos XVIII y XIX» in *IX Congreso de Estudios Vascos*. Bilbao 1983. Lan honetan, lanbide irakaskuntzak ez du tokirik eta Euskal Herriko kasuan garrantzitsua zen. Ikus bestalde zalduntxoek kolegioetat esaten dena.

(3) Ikus MUNIBE X.: «Los aldeanos críticos o cartas críticas sobre lo que se verá» in ISLA J.F.: *Obras escogidas*. Madrid, Biblioteca de autores españoles, 1945, 367-393 orr.

Bizkaiko eremura mugatuko gara eta bereziki Bilbora. Bertan 1800.an jadanik Kontsulatuko agintariek merkataritzaz ikasketa bereziak antolatu nahi zituzten, Europan oraindik hiru lau tokitan besterik ezarriak zeude-nean (4) 1804 eta 1807.an, projektu zehatza burutu ondoren Erresumako agintarien ez zien baimenik eman Eskola irekitzeko. Baina 1818.an, azkenik, lortu zuen eta 1819.an lau eskola edo katedra antolatu zituen: Marrazkia (teknikoa eta arte ederretarako; lehenago Herri Adiskideen babespean eraturik egon zen Bilbon) Matematikak, ingelesa eta frantsesa.

Bestalde, Manuel Callejak eta Juan Gonzalez de Toledok 1816.an Colegio de Santiago izenekoa fundatu zuten, lehen eta bigarren maila ez ezik merkatal irakaskuntzak irakasteko, azken hauek Kontsulatuaren diru laguntzaz. Diputazioak eta Bilboko udaletxeak ere laguntza luzatu zioten. Adibidez 1829.eko Batzar Nagusietan burdin olen birregituratzeaz ari zirenean, prest zegoela zenbait ikaskuntza berezi antolatzeko agertu zuen, hidraulika eta makinarietarako buruzkoak alegia. Baina badirudi, arrakasta lortu ezinean, 1838.an atak itxi egin zituela.

1840.an, Diputazioak Bilboko udaletxeak eta Merkatarien erakundeak, Colegio general o de humanidades de Vizcaya delakoa antolatu zuten eta 1842.an ateak ireki zituen, oinarrizko, bigarren mailako eta merkatal ikasketak, ingelesa eta frantsesa irakasteko. 1847.an Bizkaiko Colegio-Instituto delakoa bihurtu eta 1851.an edifizio eder eta berrian kokatu zen.

Aipatzekoa dugu ere, 1820.an fundatu zen Casa pension de Bidebarrieta o Colegio de Educación de Bilbao delakoa.

Giro honetan eta laborantzaren eraberritzean nolabaiteko eragina sortzeko asmoz, 1851.an ereduzko laborantzarako Eskolaren ibilbidea hasi zen.

1. OHIZKO LABORANTZAREN EGOERA ETA BERRIKUNTZA ASMOAK

1818.eko azaroko Batzar Nagusiak jadanik, batzorde iraunkor bat antolatu behar zela laborantzarako, erabaki zuen egokitu behar ziren aurrerakundeak bultzatzeko, baina ez zuen eraginik sortu (5). Lehenago Herri Adiskideen elkarteak ahalegin handiak egin zituen laborantzaren ikerketa eta ezagupide berrien zabalkundearen alde, nahi ainako eraginik lortu gabe beharbada. Laborarien produkzio hesparrua aberastu nahi zuten, patataren sarrera, hedapena, indartuz adibidez, baina bestalde abeltzantza, bereziki behi eta abelgorriena, sendotzeko, zelai eta belar artifizialaren produkzioari begirune berezia eskeintzen saiatu ziren (6). Baina mezuak ezerezean erortzen ziren.

(4) PONS Y MERI Jose: *Reseña de la Escuela Superior de Comercio de Bilbao*. Bilbao 1893. Liburu erabat interesgarria.

(5) Batzar Nagusiak, 1818.eko Azaroa, 7 orr.

(6) Extracto de las Juntas Generales de la R.S.B.A.P., 1776. XVIII mendean (1773-1774) irusta eta alfafa bedarrak lantzen hasi ziren. LABAYRU E.: *Historia de Bizcaya*. 1895, 487 orr.

1833.an Batzar Nagusiak Herri Adiskide elkarteko kide izan zirenetari-koen artean batzorde berezia sortu behar zela erabaki zuen, baina gerrak baztertera txokoratu zuen proposamena (7). Gerra ostean, berriz, gerra aurreko asmoak proposatzen hasi ziren baina premiak nabariagoak zirelarik.

Nekazal produkzioari dagokionez, gariak badirudi emendio haundirik ez zuela ezagutu (8). Norberaren elikadura edo subsistentzirako behar zirenak, emendatu ziren bereziki, artoa eta patata. Artoaren produkzioa gariarena baino zabalagoa zen herri gehinetan eta esportatzaera ere iritxi zen 1840.eko hamarkadan. Baina aldakuntza nabarmenena, lurlanduaren birregituraketan aurkitu behar dugu, polikultiboaren zabalkundean eta abeltzantzaren gorakadan. Polikultibo hau subsistentziako soil soilik zen sarritan, patata eta barazkiena. Menderdirarte txakolinaren produkzioak eten gabeko gorakada ezagutu zuen, Enkarerrietan eta Bilbo inguruan bereziki. Gernika eta Bilboko itsasadarretan barazkien produkzioak emendio nabarmena ezagutu zuela dirudi; Deustu eta Barakaldoko paduretan landatzen ziren barazkietan oinarriturik barazkien industria loratsua garatu zen (9). Azken finean eta laburki zertzelada batez agertzeko azpimarra dezakegu, baserriko antolaketa eta egituraketan oinarrituriko baserriurren zibilizazioak, bere goren puntuan gailurra jo zuen XIX menderdian, lur landuak sekula horrelako hedapenik ez zutelarik ezagutu, hektareako produktibitatea beharbada XVIII mendeko maila berdinean jarraitzen bazuen. Eta ez da harritzekoa, gogoratzen badugu, ohizko ekintza industrialak desagertzen bait zeuden, merkataritzak ere aukera berriak aurkitu eta bultzatu nahian zebiltzalako, nora jo jakin ezean sarritan. Lurra baino ez zen gelditzen, hazkunderari eusteko, baina nolako aldaketak egin behar? Horra koska, zeren prezioak jaitsi egin ziren eta ez zen aski lur eremu produktiboa besterik gabe zabaltzea. Lur jabedun handientzat, gizarteko kontsumo nahia eta produktibitatea zehazki ezagutzea beharrezkoak ziren etorkizuneko orientabideak aukeratzekoan.

Madrillen, 1846.an jadanik selvikulturarako irakaskuntza sortu zen eta 1849.an laborantzazko praktikak burutzeko Eskola (10). Europako beste herrialdetan ere, laborantzarako Eskolak eurrez sortzen hasi ziren.

Bizkaian 1848.eko Batzar Nagusian horrelako baten premian zeudela azaltzen da eta 1850.an batzorde berri bat eratu zen *Fomento de la agricultura y arbolados* izenekoa. Bestalde Bizkaiko jabedunen lehendakariak Manuel Abarrategik, 1844an zera proposatu zion Diputazioari: Bizkaiko mendiak zuhaitzez ornitzeko eta aberasteko mindegiren bat sortu behar zuela (11)

(7) Batzar Nagusiak, 1833, 80 orr.

(8) Produkzio kopuruei buruz ikus FERNANDEZ DE PINEDO E. - BILBAO L. M.: «La producción agrícola en el País Vasco (1537-1850)» in *Cuadernos de Sección Historia. Geografía 2 Eusko Ikaskuntza*. San Sebastian 1984.

(9) Adibidez La Begoñesa, 1857.an Madrilleko erakusketan saritua. *Memoria de los productos de la agricultura española reunidos en la exposición general de 1857*. Madrid 1859-1861, 1.070 orr.

(10) PONSY MERI J.: *Op. cit.* 30 orr.

(11) Bizkaiko Diputazioko Artxiboa: Acuerdos de la Diputación. Libro 95, 1844-I-25.

Gauzak honela, Batzar Nagusietako laborantzarako batzordeak, zuhaitz aberastasuna ugaltzeko, arategia burutu zuen, eta batzarrak onartu, 1850an hain zuzen ere. Arautegiko 24 kapituluan, Diputazioari zera agintzen zitzaion: Sor dezala «*Una comisión permanente que se ocupe de hacer ensayos dirigidos a mejorar el importante ramo de la agricultura del país*» (12).

C. M. Allende Salazar eta R. Guadarmino, Diputatu nagusiak zirela, 1851an Eskolaren projektua martxan jarri zuten, P.R. Aurrekoetxea bultzagile zelarik. Azken hau 1850an Batzar Nagusian Abandoren ordezkaria izan zen, aipatu dugun batzordeko kidea eta Erregidore aukeratua 1850-52 aldirako. 1850.eko abenduan Bizkaiko nekazaritzaren ikustatzailea edo «*Comisario regio*» izendatua izan zen.

Ez dakigu zer nolako diru iturriak zituen P. R. Aurrekoetxeak, baina beharbada nekazaritzan interes handiak izango zituen (13). Diputatu nagusi zeharen lur jabetzak, C. M. Allende-Salazarenak alegia, zerbait ezagutzen ditugu, eta adibide gisa ondoren erakusten ditugu. Bizkaiko lur jabedun handienetarikoa genuen. 1836an, karlistek bere ondasun guztiak bahitu egin zizkieten, Bilbo ingurukoak ezik jakina. Gernika aldean berriz bere administradore zena, karlistek bahitu zituzten ondasunen administratzailea bihurtu zen. Iturri honetan finkaturik, hara C. M. Allende Salazar, Conde de Montefuerte zenaren ondasun batzuen zerrenda (14).

(12) Batzar Nagusiak, 1850, 74 orr.

(13) Galizian omen zituen negozio ekonomikoak. M. LLANO GOROSTIZA: *Historia de la Sociedad Bilbaina*. Bilbao 1965, 99 orr.

(14) Bizkaiko Artxibategi Nagusia. Gernika. Archivo bajo Bienes Secuestrados, 1-10 erregistroa.

Herria	Maizterrak Zenbat	Estadistika ondasuna	Baserriak	Diru errentak errealak	Etxeak	Hiriko etxeen errent.	Errotak errentak	Olak Errentak	Maileguzko diru inbersioak Erreditoak Urtero
AJANGIZ	9	1.521	9	3.238			11.538		
ARRATZU	4		1	968			11.210		330err.
BERMEO	15		2	676					25 err.
BUSTURIA	6		3	1.898		1.020	1/2 440		360err.
KORTEZUBI	1		4	2.871					
FORUA	1	77	1	466					
GERNIKA	9	1.029				4.444			
LUNO	34	10.041	11	7.138					206err.
			Lur sailak	2.023			1.726		247 err.
			Enfiteusis						330 err.
MENDATA	12(maizt.) 22 zordunak maileguak bide	2.103	5	4.552			11.152		2.094err.
MUXIKA	2	534	2	1.126					Zerga berezia
ARRIGORRIAGA	4	980	3	1.388					garia eta oiloak
FIKA	2		1	528					
LEZAMA	1			Mendiak 86					
MUNGIA (ant.)	5		3	528					
				1.837					
SONDIKA	4		3	Mendiak 80 r.					
				1.246					
ELORRIO	2	543		Mendiak: 34		946			Elorrioko errepidean
ABADIANO			4 eta	2.706				1 eta etxea	akzioak.
			Muntzaraz	Garia: 1.392				2.600err.	
				Artoa: 1.140					
				Mendiak: 1.401					

LABURPENA: Maizterrak eta zordunak: 143. Baserriak: 53. Nekazal errentak: 35.115 erreale urtero. Mendiak errentak: 200 erreal, (hiru elizaldetan bakarrik deklaratuak). Hiriko errentak: 6.410 erreal urtero. Errotak: 4,5, guztira 5.066err. urtero. Olak: 1: 2.600err. urtero. Erreditoak: 3.066erreale urtero. Guztira, 1838an, karlistek bahitu zizkieten ondasunak, urtero 52.997 erreale produzitzen zioten. Horrez gain, Bilbon ere etxe jabea eta ingurunean lur sailak zituen.

Adibide honetan frogatzen dugun legez, menderdian, Bizkaiko haundikiak nekazaritzaren sektorean interes haundiak zituzten beraien diru iturri andana on bat laborantzatik heltzen bait zen. Ez da harritzekoa bada, Bizkaiko agintariak hamarkada honetan nekazal sektorearen birmoldatze eta produktibitatea lortzeko, saiakerak bilatzen aritzea.

Escuela Teórico-práctica de Agriculturaren sorrera eta bilakaera

Diputazioko buruzagiek proiektu hau bultzatzeko lur sailak erosteko gogoia erakutsi bazuten ere, azkenean 9 urterako Erandiok paduretan aurkitzen ziren mahasti, ogi lurrak eta lau etxe (Latondo, Erandiondo, Sakone-txe eta Lagaretxe edo casa lagar) alokatu zituen (15). Guztira 136.000 m.² gutxigorabehera, baina mahastiak (5.830 mahatsondo landaturik) ezer aldatu gabe, zaintzeko ardura, hartzen zuten. Bestalde, mareagoran lur sail batzu ureztatu egiten ziren eta horrelakorik ez zedin gerta, eraikirik zeuden ubideak eta ataskak jagoten ahalegindu behar ziren. Jabea Adolfo Cirilo Basabe Allende-Salazar zen, administraria Lumoko Jose Solaegi eta seguru asko C. M. Allende-Salazar diputadu nagusiaren senidetartekoa. Lur eta etxeren alokairua urteko 5.000 errealekoa zen.

Proiektua:

Izkribuetan proiektua izenburu desberdinez agiri zaigu: *Escuela práctica o casa modelo de agricultura* edo *Casa-Escuela de agricultura horticultura y jardinería* edo *Establecimiento de agricultura horticultura y jardinería*. Izenburu bakoitzak zehaztaperen gainera abel hazkuntzaren alde, behi eta abelgorriez bereziki, ikerketak eta irakaskuntzak zabaltzeko asmoa ere bazezuela.

Proiektuaren eragilea eta bultzatzailea, 1848.tik jadanik, Pablo Ramon Aurrekoetxea zen, aipatu dugun bezala, eta 1850.eko batzar nagusian erabakitakoari jarraituz, proiektua eratzen hasi zen, 1852.eko maiatzean batzar nagusia ospatu aurretik, Diputazioko agintariak eta P. R. Aurrekoetxeak hitzarmen bat sinatu zutelarik, zeinaren bidez, elkarte bat sortzen zen Diputazio eta P. R. Aurrekoetxearen artean, delako Eskola zuzentzeko, administratzeko eta abar, sor zitezkeen irabaziak edo galerak %50rean banatuko zirelarik. P. R. Aurrekoetxeak zenbait diru inbertsio egin zuen (50.000 erreal inguru) etxea konpotzen eta ingurua atontzen. Diputazioak berriz zera hartzen zuen bere gain: Lur errentaren ordaina, zuzendari fakultati-boarena, tresnerien erosketa, eta 20 ikasle gaztek sortuko zituen gastuak (janariak, jantziak, oheak eta abar).

Gainontzeko gastuak erdizka banatzen ziren.

Elkartearen helburua ez zen espekulatiboa, filantropikoa baizik, sinatzaileen eritzitan behintzat, honako jomuga zehatz hauek hartzen zituztelarik (16):

(15) B.D.A.: D-3 Probisionalki sailkatua.

(16) Ibidem.

- Laborari gazteak laborantzan hezitu, ortuzain trebe eta arituak bihurtu.
- Mindegiak landatu, mota guztietako fruitarbolez, zuhaitzez eta zuhamuxkez, Bizkaian barrena zabaltzeko.
- Saio esperimentalak burutu, bereziki zelai eta belardi artifizialak lortzeko, abel hazkuntzaren garapenari begiraturaz.
- Laborantzan ekiteko, tresna berriak ekarri eta zabaldu.
- Behi eta abelgorrien abel hazkuntza hobetzeko atzerritik enda bereziak eta egokiak ekarri.

Diputazioak gastu txikiak egin beharko zituelaren ustea zegoen, zeren mindegietan landuko zirenak salduz, irabaziak aterako zituzten eta. Gogora dezagun batzar nagusietan, mendiak zuhaitzez birlandatzeko Diputazioak mindegiak sortu behar zituela agindurik zegoen eta bestalde, Bilbo inguruan, estetika berriak zabaltzen hasi ziren, etxeak lorategiz ingururaturaz eta abar (*ahora que empieza a propagarse el gusto de las casas de campo* (17)). Irakaskuntza praktikoa eta teorikoaren zuzendaritza eramateko, Santiago Brouard kontratatu zuten. Baionan senitartekoak zituen eta 1848an Abandora iritsi eta bertan finkatu zen, *Religiosas de la Concepción* konbentuko lurrak Estuadiari alokatuz, lorazantzan eta fruitarbolez mindegi berezia lantzen aritu zelarik. Lorazantzako lana ea ezazaguna zen Bilbon 1848.an, beren ustez behintzat (18). Beraz lorazantzan aritua zena hartu zuten zuzendari legez. 8.000 errealeko soldata urteko agindu zioten, soldata oso ona, jornalari arrunt batek, urteko egun guztietan lan egin ezker 1.500 erreal inguru irabazten bait zuen. Horrez gainera, landurik zuen guztia erosi zioten eta harturik zuen lur sailaren errenta Diputazioak ordainduko zion aurrerantzean.

Irakaskuntz-programa:

Hiru urtetarako arauturik zegoen Eskolako irakaskuntz programa:

- Lehenean: Laborantzas ikastaro praktikoa: Lurren ezagupidea, lurberritzea, lur bakoitzari zegokion produkzioa. Teoria arloan, lurren azterketa kimikoaz.
- Bigarrean: Zuhaitzetaz, ikastaro praktikoa: Mota guztietako zuhaitzen ezagupidea eta Bizkain lantzeko egokienak zirenen azterketa.
Teoriaren hesparuan: Klimatologiaren eragina, landareen fisiologia eta lorazantzarako oinarrizko jakintzak aztertuko ziren.
- Hirugarrean: Aurreko urteetako ikastaldiak sakondu eta zuhaitz, landare, lora eta zuhamuxken txerkatzea eta erreproduzioa ikasi eta praktikatu. Hau da ikasitakoa esperimentatu.

(17) Archivo General del Ministerio de Agricultura. Madrid. 231 legajoa.

(18) *Cultivos de Santiago Brouard, jardinero miembro de una Academia de Horticultura, corresponsal de varias sociedades agrícolas, etc. establecido cerca de Bilbao en el barrio de Basabe en Deusto*. Bilbao 1860.

Beraz, barazki, zuhaitz eta loren inguruan arituko zen, abel hazkuntzazko arazoa aipatu gabe. Beharbada beste zuzendari baten gidaritzapean arlo hau antolatzeko asmoa zuten. Bestalde, mahastietaz ez da deus ere aipatzen eta harrigarria da, 1850.an txakolinaren produkzioa nekazien artean sektore garrantzitsuenetarikoa bihurtu zelako eta bertan mahasti ederra, lagaretxe eta guzti zutelako.

Ikasleria: 1852.eko urtarrilean jadanik, Diputazioak zirkular bat argitaratu zuen herri guztietara bidaltzeko, zeinean azaltzen zelarik Erandion *Escuela-práctica de Agricultura* delakoa antolatu zuela eta 14-18 urte bitarteko laborari gazteak onartuko zituela: Idazten, irakurtzen jakin behar zuten, osasun onekoak izan eta «*de irrepressible conducta y costumbres sobre lo cual se tomarán los informes oportunos*». Hiru urtetan aritu beharko ziren ikasten eta ikasle azkarrenari sari berezia eskeiniko zitzaion (19). Berez, ikasle gehienak hiru urte egon ziren. 46 ikasleren eskabideak jaso ziren eta 23 onartu. P. R. Aurrekoetxeak eritzia ematen zuen eta Diputazioak erabaki. Eskari askotan idazten irakurtzen eta gaztelania ere jakin bazekitela azpimarratzen zen. Gaztelaniaren ezagupidea badirudi nahietazkoa bihurtu zela. Ondoko mapan agiri da nundik egin ziren eskabideak. Aipatzekoa da, Arratiatik 16 eskakizun heldu zirela eta Arantzazuko bi baino ez ziren onartuak izan (20).

(19) B.D.A.: Circulares, 24, 1852-I-29.

(20) B.D.a. Rel. 1, behin behineko sailketa. Ondoren ikasle izateko bidaldu ziren eskarien sinatzaileak eskaintzen ditugu.

Onartu ziren ikasleen zerrenda

Juan Larrea
 Pablo Iñarritu
 Juan Domingo Gaztelu
 Julian Larrakoetxea
 Jose Ramon Bilbao
 Manuel Arrola
 Manuel Erkoreka
 Jose Maria Ugarriza
 Bartolome Sautua
 Pedro (kasako)
 Julian Zubiema
 Isidoro Olabide
 Julian Iturbe
 Gabriel Etxebarria
 Benito Kastaños
 Luciano Gorostiaga
 Jose Rufino Anduonagoitia
 Manuel Anduonagoitia
 Antonio Torrontegi
 J o s e A m e z a g a
 Manuel Maria Hormaetxe
 Julian Etxebarria
 Jose Guarrotxena

Nungoa zen

Gordexola
 Güeñes
 Larrabetzu
 Ugao-Miravalles
 Mungia
 Mungia
 Mungia
 Orozko
 Orozko
 Sondika
 Muskiz
 Abando
 Arantzazu
 Arantzazu
 Barakaldo
 Begoña
 Berriz
 Berriz
 Derio
 Deusto
 Zamudio
 Errigoiti
 Errigoiti

Espedienteen arabera hauek dira onartuak, 23, hala ere badirudi batzuk beranduago sartu zirela eta baliteke beste baten ordean edo onartuak izatea. Tokiko historiak idazterakoan interresgarria litzateke izen hauek gogoan izan, herriko laborantzan eraginik sortu zutenentz zihuratzeko.

Baztertuak

Esteba Zugazaga
 Jose Ramon Ydirin
 Jose Ramon Goiri
 Lucas Manzarraga
 Lazara Manzarraga
 Ciriaco Yturbe
 Bruno Astondoa
 Remigio Sagastigoitia
 Juan Bengoa
 Ramon Elortegi
 Nazario Barrenetxea
 Eustasio Bilbao
 Meltxor Andonegi
 Francisco Mendieta
 Francisco Costa
 Jose Antonio Ybarretxe
 Leon Berasaluze
 Francisco Abasolo
 Pedro Angel Urraza
 Emeterio Arriaga
 Jose Francisco Larrakoetxea
 Pedro Ayerdi
 Inocencio Ruiz

Larrabezu
 Ugao-Miravalles
 Sondika
 Castillo Elexabeitia
 Castillo Elexabeitia
 Castillo Elexabeitia
 Castillo Elexabeitia
 Castillo Elexabeitia
 Castillo Elexabeitia
 Derio
 Dima
 Igorre
 Igorre
 Igorre
 Igorre
 Igorre
 Igorre
 Igorre
 Zollo
 Errigoitia
 Zeberio
 Zeberio
 Orduña



- Erandioko Nekazal Eskolan sartu ziren ikasleen jatorria. 1859.an sortutako aberetxeak: Atzerritik ekarri ziren abereak: Durham eta Ayr endakoak Britainia Handitik, Switz endakoak Suizatik.

Beraz 1852an, Eskola martxan aurkitzen zen. Baina berehala sortuko ziren lehendabiziko arazoak.

Arazoak:

1852.eko maiatzean ohizko batzar nagusia ospatu zen Gernikan eta Bonifazio Vildosolak, Eskolaren antolakunde eta aurrerakunderako Diputazioak pertsona individual batekin sinatu zuen hitzarmena, elkarte bat sortuz, bidezkoa ez zela salatu zuen. Urte horretan P. R. Aurrekoetxea, Abandoko ordezkaria zen hain zuzen ere. Baina beste inork ez zuenez besterik esan, Diputazioaren ekintza, ontzat eman zen. Baina aitzaki honetan finkaturik edo, P. R. Aurrekoetxeak 1852.eko ekainaren 8.an, hau da hitzarmena sinatu eta bi hilabetera, sortu berria zuten elkartearen deusestapena proposatu zuen eta aurreratu zuen dirutza, 50.000 erreale, itzul diezaiotela. Zuzendaritza eta administrazioa ere utzi egin nahi zituen. Abuztuan berriz, proposamen berbera luzatu zuen eta zoritxarrez Eskola abandonaturik zegoela eranstu zuen (*«triste abandono en que se encuentra»*) (21).

Diputazioko agintari berriak ez zioten jaramon handirik egiten ez berri ez eta Eskolari ere. Bakar bakarrik zera erantzun: Jarrai zezala, nola edo hala.

Baina 1853.eko urtean ere lelo berdina eta martxoan, osasun aitzakiak atera zituen. S. Brouard-ek ere ardurak utzi egin zituen. Gauzak honela, 1853.eko maiatzean Diputazioak batzorde berezia sortzen saiatu zen, C. Adan de Yarza, J. M. Uria eta P. R. Aurrekoetxea batzordeko izendatuz, Eskolaren zuzendaritza eta administrazioaz arduratu zitezten. Ekainean P. R. Aurrekoetxeak, S. Brouarderi Erandioko Eskolan sarrera debekatu egin zion, ganora gabe aurkitzen zela salatuz (*«completamente descuidada»*). Beraz, dirudienez bien arteko tirabira ere gertatu zen. Baina azken batez, P. R. Aurrekoetxeak erabat utzi zuen arazoa eta uztailean berriz ere S. Brouard lanean aritu zen.

Carlos Adan de Yarzaren eritzitan, Eskola alperrik zegoen, bertako zeregina *«vida raquítica y miserable»*tzat kalifikatuz eta horrekin batera *«falta de unidad de pensamiento»* hau da joera, asmo eta helburu desberdinak zuzeldela agiri da. Azkenean batzordeko kide izatea utzi egin zuen. Azken batean, Eskolako bizimodua nahaste borrastetan murgildurik zegoen, Diputazioko agintariak zer egin ez zekitelako eta areago oraindik zer agindu ere ez.

1854.eko batzar nagusiak, arazoa, berriz ere aztertu zuen eta Diputazioari honako agindu hau eman zion: Eskolaren antolakunde sakonki erreforma zezatela edo bestela itxi, zeren 236.162 erreale xahaturik bait ziren jadanik bertan. Bestalde, jakin dezagun, urte hauetan Bizkaiko finantza publikoetan defizita gero eta sakonagoa zela.

Gauzak honela, 1855.eko otsailean, batzorde ekonomikoa, likidazioaren alde azaldu zen: Argudio bat erabiltzen du, likidazioa nolabait zalantzarik gabe onartua izan dadin: S. Brouardrekin sinatu zuen hitzarmenean berez

(21) B.D.A.: R. 1 Nekazaritza-abel hazkuntza. 1852-1892.

nekazal enpresa («*empresa agrícola*») bat fundatu zen, Eskola edo irakas-kuntza erakunde baten ordezt:

«... no ha podido menos de conocer que más bien que una escuela de agricultura es una empresa agrícola útil acuso mui útil para un particular que con instrucción funde su interés en ella, pero de mui escusa o ninguna utilidad a la generulidad y gran musa de labradores del Señorío» (22).

Ondoren beste honetan, egindakoaren balorapena eskeintzen dute:

«Su obgeto especial ha sido y es la formación de pastos para uso en seco del ganado cabalar, la cría de árboles y arbustos y el cultivo de flores y frutas. Esta ligera descripción basta u dar a conocer que no es una institución que preste utilidades de instrucción y enseñanza al labrador sino una empresa agrícola capuz de mucho lucro al particular que sepa dirigirla y manejarla.»

Beraz ez da erakunde publikoaren zeregina, eta bereziki Diputazioarena enpresa berrian finantziario eta arazoetan sartzea eta ondorioz utzi egin behar zela delako Eskolaren zeregina, hartu eta sinatu ziren hitzarmenak bete ondoren alegia. Errepedegintzan ari ziren enpresen, kasuan horrelako gogoetarik ez egin ez eta aplikatzeko agindurik, ez zuten hartu. Bestalde, 1852an Diputazioak, mindegiak sortzeko agindua, hartu zuen.

Baina ordaindu behar ziren gastuei aurre egiteko eta guztia ez zedin gal, mindegietan landaturik zegoena jagon behar zen ondoren saltzeko; eta hitzarmena bukatzen zenerako, bederatzigarren urtean agian, 1860an, oro kitatuko zen. Eta horrela 1860.eko otsailean, zorrak eta tratuak garbitu ziren.

Ikasleen artean, batzuek jarraitu zuten, jornalari legez edo, lanean, eta beharbada zerbait ikasiko zuten.

Porrotaren zergatiak eta ondorioak

Projektuaren sortzailea eta bultzatzailea P. R. Aurrekoetxea izan zen. Bere jarreraren aldaketak beharbada hasiera batetan nahiko baldintzatu zuten, berak ere bere burua sarritan isolaturik ikusi bazuen. Berez ideia ona zen, European eta erresuman horrelakoak eurrez eraikitzen hasi ziren eta Euskal Herrian ere 1850.eko hamarkadan herrialde guztietan antolatuko ziren.

Baina lurak modurik egokienean ez ziren alokatu, mahastiak erabili ezineko lur sail bat osotzen bait zuen. Badirudi barantzantza eta lorantzantzarako aukeratuak izan zirela. Baina zuzendariak horrezaz gain «*fomento de la cría de ganado vacuno*» ere nahi zuen, baina ez bide zuen horretarako laguntzarik aurkitu. Hara zer idatzi zuen P. R. Aurrekoetxeak (23):

(22) Ibidem.

(23) A.G.M.A.: 231 legajoa

«... ha venido a descuidarse. Necesita mayores dimensiones y una protección más activa, eficaz y perseverante, si el pensamiento que los Diputados Generales de Vizcaya concibieron en 1851 y acogieron los actuales con calor ha de realizarse porque en él se comprendía además del cultivo en todos sus principales ramos el fomento de la cría del ganado vacuno.

Los labradores de Vizcaya cifran hoy una parte de su riqueza en esta grangería.»

Jaurerriko finantzak defizit handian amildurik aurkitzen ziren eta Eskolako arazoak ardurarik gabe bazterturik zituzten, errepedegintzan ari ziren enpresak bereganatzen saiatu zirelako, gastu publikoaren dirutza gehienak horretarantz bideratu zituztenelako. Horregatik, 1853.eko urrian P. R. Aurrekoetxeak Erresumako gobernuari laguntza eskatu zion, atzerrian, zezenak eta behiak erosteko. Baina, ez dirudi, lortu zuenik.

Jaurerrian ere laborarien etorkizuna abel hazkuntzaren eskutik zegoe-la, gero eta gehiago zabaltzen ari zen eta 1852.eko eta 1856.eko batzar nagusietan arazoa aztertu egin zen, eta proposamenak burutu ere bai (24). Urte hauetan jadanik, haundiki batzuk, Peñafloridako kondea adibidez, Markinan, Gipuzkoako eta Durham zezen behiak uztartzetik jaio ziren zekorrak, bere lurretan hedaturik zituen (25). Eta 1858an, Bizkaiko Diputazioko batzorde bereziak, E. Garagarzari, Arabako Nekazarien Eskolako zuzendariari, abel hazkuntzaren garapenarako laborantzarako etxe eredu garri baten projektua eskatu zion, baina oraingoan ganaderitzaren garapenaren ikuspegitik bereziki. Erandioko eskola oraindik irauten zuen, baina inolako eraginik gabe, mindegi eta lorazantza gun bat bezala agertzen zelako alegia.

Horra bada, aurreko urteetako esperientzian oinarriturik, oraingoan abel hazkuntzaren orientabidea nagusitzat jarri zen eta ondorioz, atzerritik (Inglaterratik, Suizatik) behiak eta zezenak ekarri ziren, Bizkaian zehar sortu ziren etxe berezietan eukitzeko, laborarien zerbitzurako, bertako enden aberaskuntzarako, baserritarrei beraien behiak uztartzeko aukera eskainiz. Zelai ugari eza zen akatsik nabarmenena ganaderitza sendo bat garatzeko, lur gehienak landu behar baitziren, etxerako mantenugaiak ateratzeko eta errenta ordaintzeko, ez bait zen hain erreza lur sail bat zelai bihurtzea. Zazpi urteren buruan 1865. an politika bide honek ere porrot egin zuen (26).

(24) Batzar Nagusiak 1852, 64 eta 39 orr. Batzar Nagusiak 1856, 60 orr.

(25) GARAGARZA E. : Cultivo *agrario de Vizcaya y sus necesidades más urgentes*. Bilbao 1859, 15 orr.

(26) Hara Martin Ozamiz, Kortezubitarren eritzia:

«Que el ganado vacuno importado del extranjero.. con el fin de mejorar la raza del país no ha correspondido a esperanzas de desear, como lo prueba la poca aceptación que tiene en el mismo.. con que vendiéndose mucho más barato, no puede competir en las transacciones con el de las razas terrefias»

Frakasu hauetan, zergatiertariko bat, eta beharbada eragin zuzenena zuena, garaiko egituraketa sozialean legoke agian. Urte hauetan, %25 zen gutxi gora behera etxejoaun jabetuna eta gainontzekoak maizterrak edo jornalariak, etxerik etxe morrontzan ibiltzen zirenetarikoak. Inguruko herrialdekin parekatuz gero, jabetunen kopurua nahiko haundia zen. Baina hala ere ez dugu ahaztu behar eguneroko mantenguaiein produkzio premiak ez zuela aukerarik eskeintzen ikaskuntzan eta esperimentoetan aritzeko. Hara zer idatzi zuen Oinatin finkaturik zegoen Nekazal Eskolako zuzendaria:

«La concurrencia de alumnos ha sido escasa, los propietarios no cultivan por su cuenta y no necesitan conocimientos, los labradores son inquilinos pobres y además dedican al trabajo sus hijos desde muy niños» (27).

Testu erabat adierazgarria eta argia. Baina, 1852.an, Bizkaian, Gobernu inkesta bati eman zizkioten erantzunak antzeko gauzak azaltzen dizkigute. Nekazari arrunt batek, etxeko errenta ordaindu behar zuen, familia-erantzutaz elikagaiak, sendagaiak eta tabakoa atera, semealaben hezkuntza, gehienetan azken honetan gasturik ez bazuen erabiltzen. Pertsona bakoitzeko, 4 errealeko gastua zegoen. 8 urtekin semealabak laborantzako lanetan hasten ziren.

Egoera honetan, ez da nahiko idea berririk edo eta irakaskuntza aukera eskeintzea ohizko produkzio moldeak aldatzeko, nekazariak eragin material konkretu batzuen babespean erabat aurkitzen diren bitartean. Adibidez, ganaderitza-korta-etxeen politika zabala, etxejoaun gutxi batzuen mesederako baino ez zen iritsi gainontzekoentzat nahiz eta gura, baldintza sozial haietan, bizi beharra bait zuten lehendabizikoa.

Erandioko Eskolaren orientabidea beharbada ez zen izan ongi ulertua eta barazantza-lorazantza, orohar mugatua zen. Dena dela Bizkai mailan, barneko mekatuaren eskakizunei begira, barazkien produkzioak laborantza komertzializatuaren bidea urratzen zuen eta nolabaiteko industrigintza ka-teatu ere bai, aipatu dugun legez (28).

Autosubstentziko sistemari alternatiba bat eskeintzen zion, baina pazientzia txikia eta aldaketa sakona suposatzen zuen ohizko nekazal produkzioari atxikiturik. Baina ez dut uste bide okerra zenik. Bizkaiko lurgintzan espezializazio bat bilatzen zuen, nekazal kultura aberastuz. Baina berriz ere faktore sozialek aldakuntzaren galgatza jokatu zuten.

Beraz bukatzeko, Erandioko saioa esperientzia legez interesgarria eta oportunitate galdu bat. Hala ere, jakingarriak dira ikuspuntu kontserbado-

E. Garagarzaren eritzia, 1865.ko otsailak 14:

«estado poco satisfactorio en que se hallaban dichas paradas en la actualidad a causa de que los toros que se trajeron de Inglaterra son demasiados viejos para seguir prestando servicio sin que las vacas hayan dado productos capaces de sustituirlos.. manifiesta su opinión de suprimir dichas paradas.»

B.A.D.: Acuerdos de la Diputación, 107 liburua, 1864-XII-7, 1865-III-10.

(27) *Memoria de los productos de la agricultura española.* 211 orr.

(28) *Memoria de los productos de la agricultura española.* 1.070 orro.

retik abiatuz garai garaiko kritikak (29). V. Laffiten ustez, ganaderitzan eragina izan zuen (30) gure eritzian berriz, Eskolak ez zuen izan horrenbeste, beharbada geroko esperientziak zerbait bai, baina nahiko mugatua. Diputazioko agintariek, bestalde ez zuten erakutsi ikuspegi zorrotzik, eta ez zuten jakin nekazal politika bat bideratzen jakin. Une hartako beste arazoak garrantzi haundiagoa hartzen zituzten, hala nola, errepedegintzaren defizitaren amortizazioa edo trenbidegintza. Errepidegintzan behintzat, kasu eta proiektu guztietan dirutza mordoak erdialperrik edo gaizki inbertitu ziren, akzio jabeen interesak gehiegi zainduz.

Horregatik diogu, hamarkada horretan Diputazioko agintaritzan egon zirenak ikuspegi zabal eta sakon gabe jokatu zutela, zeren Bizkaiko laborarien zibilizazioa aldakuntza bortitz baten aurrean aurkitu zirenean ez bait zuten behar ainako laguntza eta orientabide egokiak jaso.

Ohizko egituren eraginpean, egoera sozialak askorik aldatu gabe, nekazal produktiogintzak tradizioaren bidetik jarraitu zuen bigarren mendean.

(29) Hona hemen L. Olazabalek idatzi zuen kritika, ohizko praktikak eta ohiturak gorai-patuz:

« nada han querido saber efectivamente más que lo que han visto y palpado, los buenos resultados que dio a sus padres y a sus abuelos inseparables compañeros de sus campos, la misma tierra que hoy se halla confiada a ellos. Si la Diputación cayó lastimosamente en una rez, creando un establecimiento con el nombre de Granja-Modelo bajo la dirección de un extranjero, las tortuosas prescripciones, si así pueden llamarse las de aquella pseudo-escuela, no hallaron por fortuna eco en los agrestes campos de Vizcaya, y murió sin dejar otro fruto que la dolorosa impresión de un déficit de 236.162 reales que tenía en su caída, acontecida después de tres años de existencia desconocida para la generalidad de los habitantes del Señorío. Estos continuaron inalterables en sus saludables prácticas...»

OLAZABAL Lucas: *Suelo clima cultivo agrario y forestal de la Provincia de Vizcaya. Memoria premiada por la Real Academia de Ciencias en concurso público con arreglo al programa presentado por la misma el ario de 1856*. Madrid 1857, 90 orr.

(30) LAFITTE V. : «Agricultura y ganadería vascongadas. *Geografía general del País Vasco Navarro*. Barcelona, urterik gabe, 613 orr.

SINTESIS

La enseñanza profesional a mediados del siglo XIX: la Escuela de agricultura en Vizcaya (1851-1860)

Durante la segunda mitad del siglo XVIII y primera mitad del XIX se fundaron diversos centros educativos en los que se impartían enseñanzas relacionadas con las ciencias positivas y las que pudieran contribuir a una capacitación profesional de la juventud de forma que mejoraran la estructura de producción vigente. Entre otros durante el siglo XIX los estudios comerciales adquirieron un notable desarrollo.

En 1851, la Diputación de Vizcaya creó la Escuela teórico-práctica de agricultura, para lo cual arrendó unas casas y tierras de la vega de Erandio. Sin embargo los ambiciosos programas y objetivos (tres cursos teórico-prácticos con especial énfasis en la horticultura y jardinería, si bien en un comienzo también se pensó en la ganadería) no encontraron el medio preciso para su desarrollo. Inmediatamente después de su puesta en marcha con 20 alumnos, surgieron diversos problemas: de índole económica, (limitaciones presupuestarias), reorientación de objetivos hacia la ganadería, mala gestión. Todo lo cual contribuiría a que en 1856 la Diputación decidiera su cierre y liquidación. Para unos, más que una Escuela se trataba de una empresa agrícola. De manera que en 1860 se procedió a su definitiva liquidación. Con el ánimo de contribuir a la mejora del ganado vacuno y de cerda, se importaron de Inglaterra y Suiza distintas razas y se organizó un sistema de paradas descentralizado para lograr un servicio más eficaz. No obstante en 1865 se reconoció el fracaso de la política ganadera.